EUSKAL HERRIA MUSEOA

Bisitak eta tailerrak

Bizkaia
euskal herria museoa

Allendesalazar 5, Gernika Lumo
TL. 946255451 / euskalherriamuseoa@bizkaia.eus

Sarrera

Euskal Herria Museoak 1733. urtean eraikitako Alegria edo Montefuerte jauregian du bere egoitza, Gernikako Batzar Etxearen ondoan.

Bizkaiko Foru Aldundiak 1982an eraikina eta bertako lorategiak eskuratu zituen: eraikina Euskal Herria Museoa bihurtuz eta lorategia Europako Herrien Parkea.

Museoan, maketa, artelan, ikus-entzunezko eta hainbat objekturen bidez, Euskal Herriko historia eta kulturan zehar bidaiatu daiteke.



BISITA LIBREA TALDEAN

Urte guztian zehar

10:00-16:00 (neguan) / 10:00-17:30 (udan)

Prezioak:

3€ pertsonako (10 pertsona baino gehiagoko taldeak)

Dohainik hezkuntza arautuko ikasleak eta baztertze arrisku egoeran dauden pertsonak

Museoa askatasunez bisitatzeko aukera, lau solairuak nahi bezala ikusteko denbora hartuz. Ibilbidea paneletako informazioak eta hainbat ikus-entzunezko baliabidek osatzen dute. Bisitariak lasaitasunez jarrai dezake museoko erakusketa orokorra zein aldi baterakoa.

BISITA GIDATUAK

Urte guztian zehar (asteburu eta jaiegunetan izan ezik)

10:00-15:30 (neguan) / 10:00-17:00 (udan)

Prezioak:

4€ pertsonako (10 pertsona baino gehiagoko taldeak)

1€ hezkuntza arautuko ikasleak eta baztertze arrisku egoeran dauden pertsonak (laguntzaileak dohain)

Orokorra

Taldeentzako bisita gidatuak eskaintzen dira Museoan. Talde motaren arabera azalpena egokitu egiten da eta euskaraz edo gaztelaniaz izan daiteke.

Adina: + 16 urte
Iraupena: 1 ordu



Euskal Kultura

Ekintza honen bitartez euskal kulturan sakontzen da modu didaktiko eta entretenigarri batean. Museoko kulturaren solairua modu praktikoan bisitatu eta gero Herri Kiroletara jokatzeko aukera izango dute.



(Aisialdi taldeei zuzendua)

Adina: 4-18 urte
Iraupena: 1 ordu

Bizkaia Erdi-Aroan: mitoak, foruak eta batzarrak

Bisita gidatu honen ardatz nagusiak Bizkaiko Jaurerriaren Foruen jatorria eta abolizioa dira. Hortik abiatuta eta Euskal Herria Museoko erakusketa iraunkorreko baliabideak aprobetxatuz, Behe Erdi-Aroko Bizkaiaren antolaketa politiko-soziala errepasatuko dugu.

Adina: + 14 urte
Iraupena: 1 ordu

IKASLEENTZAKO TAILERRAK

Asteartetik ostiralera ikasturtean zehar

Ordutegia: 10:00-14:00

Prezioa: **2€**, laguntzaileak dohain

Basoak historian

Agenda 2030ekin lotutako jarduera. Helburua ikasleek basoek eta zuhaitzek Euskal Herriko historian izan duten garrantzia ulertzea da.

Ikus-entzunezko baten ostean, Museoa bisitatuko da gai horrekin lotutako baliabideak erabiliz. Adinaren arabera, jarduera hauek egingo dira:

1-Berrerabiltze tailerra (4-8 urte)
2-Pista-jokoa parkean (9-12 urte)

Adina: 4-12 urte
Iraupena: 1h 30´

Foruak eta Batzarrak

Ekintzaren helburua Foruek eta Batzarrek Euskal Herrian, bereziki Bizkaian, izan duten garrantzia ezagutzea da.

Azalpen labur baten bidez, Euskal Herriko lurraldeetan Foruen eta Batzarren sorrera eta bilakaera azalduko da

Bukatzeko, parte hartzaileek Bizkaiko Batzar Nagusi baten antzezpen inprobisatua egingo dute.

Adina: 10-14 urte
Iraupena: 1h 30´

Euskal Kultura Jokoa

Helburua umeek euskal kultura modu partehartzailean lantzea da.

Ikus-entzunezko bat proiektatuz ematen zaio hasiera ekintzari.

Ondoren, Museoko bigarren solairua bisitatzen da; herri kiroletako materialak ezagutzeko, musika tresna tradizionalak ikusteko, etab.

Bukatzeko froga eta galderez osatutako “Euskal Kultura Jokoa” egiten da.

Adina: 8-12 urte
Iraupena: 1h 30´

Altxorrak eta Kartografia

Ikasleek kartografiaren bilakaera eta historian zehar izandako garrantzia ezagutzeko ekintza honetan, antzinako mapak irakurriko dituzte.

Lehenengo, Museoko kartografia bilduma bisitatuko dute. Ondoren, gela didaktikoan, iparrorratzen funtzionamendua ulertzeko esperimentu bat egingo da.

Bukatzeko, museoko lorategian “Altxorraren Bila” jolasaren bitartez ikasitakoa praktikan jarriko dute.

Adina: 10-16 urte
Iraupena: 1h 30´

BESTELAKO TAILERRAK

Familia tailerrak

Azaroan hasi eta maiatzera arte, hilean igande batean, familiako kide guztiek (haurrak eta helduak), Euskal Herriko kultura eta historiako alderdi ezberdinak ezagutuko dituzte tailer eta jolas dibertigarrien bidez.

Adina: **4-10 urte** bitartean, helduekin lagunduta

Ordutegia: **12:00-13:30**

Prezioa: **1€** pertsonako



Opor tailerrak

Opor garaian (uda, Gabonak eta Pazko astea), haurrek Euskal Herriko historia eta kulturari buruzko tailerretan parte hartzeko aukera izango dute, jolas eta jarduera plastikoak eginez.

Adina: **5-10 urte**

Ordutegia: **11:00-13:00**

Prezioa: **1€** eguneko

Gazte tailerrak

10 urtetik gorako neska-mutilek elkarkidetzan sortzeko tailerretan parte hartu ahal izango dute, artearen boterea ulertzeko eta, horrela, Gernika eta bere inguruneko ondare kultural eta naturala balioesteko, aniztasunean bizikidetza elikatuz.

Adina: **+ 10 urte**

Azarotik martxora

Ordutegia: **16:00-18:00**

Prezioa: **Dohainik**

MUSEOKO LORATEGIA ETA EUROPAKO HERRIEN PARKEA

Museora bisita osatzeko, lorategiak eta parkeak baliabide ugari eskaintzen dituzte aire zabalean gozatzeko. Espazio horretan, QR bidez eskura daitezkeen espezie botanikoei buruzko informazio-plakak daude, bai eta ibilbidean zehar banatutako hainbat eskultura eta busto ere. Leku pribilegiatua da, Gernika-Lumoko erdigunean.

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK

Erreserba ezinbestekoa da
bisita eta tailer guztietarako

946 255 451
euskalherriamuseoa@bizkaia.eus

www.bizkaikoa.bizkaia.eus

Allendesalazar 5
48300 Gernika-Lumo
Bizkaia

EUSKAL HERRIA MUSEOA